

81. FITXA Energia-komunitateen proiektu pilotu berezietarako pizgarrien programa (CE IMPLEMENTA PROGRAMA), Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan - NextGenerationEU

Nori zuzendua: pertsona juridikoak, publikoak zein pribatuak, legez eta behar bezala eratuak, egoitza fiskala Espainian dutenak eta **energia berriztagarrien komunitate bat edo herritarren energia-komunitate bat** osatzen dutenak.

Sarbide-esteka: <https://sede.idae.gob.es>

Erreferentziazko araudia: [TED/764/2024 Agindua, uztailaren 22koa, zeinaren bidez onartzen baitira energia-komunitateen proiektu pilotu berezietarako pizgarri programa berriko \(CE Implementa programa\) laguntzak emateko oinarri arautzaileak, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan Europar Batasunak finantzatua - Next Generation EU](#)

Eremuak: Energia-trantsizioa

Zenbatekoa: 30.000.000 € (Bosgarren deialdia); 90.000.000 € (Seigarren deialdia)

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/09/19tik 2024/10/31ra (12:00ak arte)

Laburpena

Laguntzen helburua **energia-komunitateak sortu eta garatzeko** interesa duten eragileei, batez ere herritarrei, ETEei eta tokiko erakundeei, laguntzeko sistema indartzea da; horrela, bidezkoa eta inklusiboa izango den deskarbonizazioa lortzen lagunduko da, azpiegitura berdeetako inbertsioak sustatuz eta tradizionaliki sektore energetikoan inplikatu ez diren eragileek parte hartuz.

Erakunde publikoek baldintza hauek betetzen badituzte soilik jaso ahal izango dituzte laguntza horiek: **herritarren energia-komunitatea izatea** edo **energia berriztagarrien komunitatea izatea**. Energia-komunitatea da laguntza horien azken onuraduna.

Energia berriztagarrien komunitateak partaidetza ireki eta borondatezkoan oinarritutako erakunde juridikoak dira, autonomoak eta entitate juridiko horien jabetzakoak diren energia berriztagarrien proiektuak garatu eta horien inguruan dauden bazkideek edo kideek benetan kontrolatuak. Gainera,

erakunde juridiko horietako bazkideek edo kideek pertsona fisikoak, ETEak edo tokiko erakundeak izan behar dute, udalerrriak barne, eta haien helburu nagusia bazkideei edo kideei edo jarduten duten tokiko eremuei ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak ematea izan behar da, finantza-irabazien ordeaz.

Herritarren energia-komunitateak borondatezko partaidetza irekian oinarritutako erakunde juridikoak dira. Horien **benetako kontrola pertsona fisikoak, toki-erakundeak (udalerrriak barne) edo enpresa txikiak diren kide edo kideek gauzatzen dute**, eta beren helburu nagusia kideei, bazkideei edo jarduera garatzen duten herriari ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak eskaintzea da, finantza-errentagarritasuna lortzea baino gehiago.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Honako arlo hauetako **proiektu pilotu bereziak** lagundu ahal izango dira:

- **Energia berriztagarri elektrikoak:** biomasa, biogasa edo beste gas berriztagarri batzuk, eolikoa, hidraulikoa eta eguzki-energia fotovoltaikoa.
- **Energia berriztagarri termikoak:** aerotermia, biomasa, biogasa, biometanoa edo beste gas berriztagarri batzuk, geotermia, hidrotermia eta eguzki-energia termikoa, bai eta iturri horiek aprobetxatzeko sistemak ere, deialdian zehaztutako aplikazioetan.
- **Energia-efizientzia:** ingurutzailen termikoaren energia-eraginkortasuna hobetzea.
- **Mugikortasun jasangarria:** ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura ezartzea, eta mugikortasun partekaturako ibilgailu elektriko "entxufagarriak" eta erregai-piladunak erostea.
- **Eskariaren kudeaketa:** kontagailuaren atzean biltegitratzea eta biltegitratze hidrauliko zein beste biltegitratze-sistema berritzaile batzuen bidezko erregulazio sistemak, hurrengo belaunaldiko bateriak edo ibilgailuen baterien aprobetxamendu berriak (baterien bigarren bitzta) barne hartu ahal izango dituztenak, energia termikoaren eskaria gehitzea eta eskariaren malgutasun-zerbitzuak barne hartuta.

Diruz lagundu daitezkeen proiektu pilotuek, gutxienez, lehenengo lau jardun-eremuetan zehaztutako jarduketetako bat izan beharko dute.

Programa honetan eman beharreko laguntza eskaera bakarrera mugatzen da, deialdi bakoitzeko eta energia-komunitate bakoitzeko.

Bosgarren deialdirako, gehienez 1.000.000 €-ko inbertsioa ezarri da proiektu bakoitzeko.

Seigarren deialdirako 1.000.000 €-tik gorako gutxienerako inbertsioa ezarri da proiektu bakoitzeko.

Diruz lagun daitezkeen kostuak

Honako hauek hartuko dira diruz lagundu daitezkeen kostutzat:

- a) Eskabidea egiteko eta laguntza-jarduerak egin direla justifikatzeko **kudeaketa-kostuak**, txostenak eta eskabidea zein justifikazioa egiteko eskatzen den gainerako dokumentazioa idaztea barne.
- b) Jarduketak gauzatzearekin zerikusia duten **proiektu teknikoak** egitea.
- c) Diruz lagun daitezkeen proiektuen jarduketak gauzatzeko **lizitazioaren xede diren pleguak idazteko** kostuak.
- d) Jarduketak burutzeko **zuzendaritza fakultatiboaren** kostuak.

- e) Obran eta muntaketan **Segurtasuna eta Osasuna** koordinatzeko kostuak.
- f) **Obrak gauzatzeko kostuak**, obra zibila eta/edo instalazioen muntaketa barne.
- g) **Ekipo, material eta instalazio osagarrietan** egindako inbertsioa.
- h) Instalazio kontsumitzaileen energia elektriko edo termikoaren sorrera, metaketa eta eskaria **kudeatzeko, aktiboki kontrolatzeko eta monitorizatzeko sistemak**.
- i) Energia-komunitatearen gobernantza eta/edo administrazioa **kudeatzeko tresnak** garatzeko kostuak.
- j) Informazio- eta publizitate-betebeharrak betetzeari buruzko **komunikazio**-kostuak.
- k) **DNSH** printzipioaren betebeharrak betetzeari dagozkion kostuak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak egiteko eta laguntzen xede diren jarduerak gauzatzeko epea **14 hilabetekoa** izango da, laguntza ematearen aldeko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

Oinarrien aginduarekin bat etorriz, onuradunek proiektuaren memorian aurreikusitako jarduerak egin beharko dituzte, gehienez ere **2026ko martxoaren 31ra arte**, baina data atzeratu ahal izango da, une bakoitzean indarrean dagoen Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana erregulatzen duen araudiak hala baimentzen badu.